



Zurriolako Ataria

18. alea

2018-04-13

Barandiaran Lizeoaren oroitarria Hurr

1974. urtean inauguratu zen Barandiaran Lizeoaren oinordekotza pedagogiko eta instituzionala hartua du Zurriola Ikastolak 2008. urtez gerostik. Lizeoaren izaera fisikoa, ordea, aurten desagertu da. Aste Santua baliatuta, Xabier Linabek eta Kike Alejandrok 1974. urteko inaugurazioaren oroitarria berreskuratu eta Hurrn ezarri dute. Katea ez da eten. ([+ irakurri](#))



Koldo Mitxelena Literatura lehiaketan irabazle

Aurten ere Zurriolak oso emaitza onak lortu ditu Udalak antolatzen duen literatur lehiaketa honetan. Saridunak honako hauek izan dira: Komikian Amaia Ausin eta Izaro Arenzana, Bertsogintzan Sara Balerdi eta Telmo Agirre, Olerkian Ihintza Zabalo, Ipuinan June Höök, Lore Lasa eta Luken Ruiz de Loizaga eta Mikroipuingintzan Garikoitz Diaz. Zorionak parte hartzaile guzti-guztiei.



Elkartasun Azokaren emaitza

Oporren aurretik LH6ko ikasleok antolatutako azoka solidarioak izan du emaitzarik: Gaur *Aspanogi* elkarteko Nekane eta Kontxiren bisita izan dugu eta bildutako diru guztiaren txekia eman ahal izan diegu harro-harro. Mila esker azokara bertaratu zineten guraso, lagun eta LH5eko ikasleei.



Enjoy English udalekuak

Ikastolen Elkarteko Udako aisialdi eskaintzaren barruan *Enjoy English* egitasmoa indarberrituta dator aurten. Bertan duzue informazio [esku-orria](#), [bideoa](#) eta [matrikula](#) egiteko lotura.



ZURRIOLA IKASTOLA
BATXILERGOA

ARTE BATXILERGOA DUEN
IKASTOLA BAKARRA

ATE IREKIAK
Apirilak 19, 18:30
AURREMATRIKULAZIOA
Maiatzak 2-14

BATXILERGO
MODALITATE GUZTIAK
ZIENTZIAK
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
ARTEAK

www.zurriolaikastola.eus
943272587

ATE IREKIAK. Apirilaren 19an Zurriolak bere Batxilergo eskaintza egingo du jendaurrean arratsaldeko 6:30ean. ZABALDU MEZUA!

OHARRAK / AGENDA:

- **LH4:** Ikastolaren Eguna (Maiatzak 5). Antolaketa [oharrak](#).
- **LH5-6 + DBH:** Udalekuen aurkezpenak. Apirilak 16.
- **DBH2B-2C:** Bela ikastaroa. Apirilak 16.
- **DBH2A:** Bela ikastaroa. Apirilak 17.
- **DBH3A:** Piragua ikastaroa. Apirilak 16.
- **DBH3B:** Piragua ikastaroa. Apirilak 17 eta 19.
- **DBH4:** Zinema. "Handia". Apirilak 20.
- **Groseko Gaztelekua & Haur Txokoa:** Apirileko [egitaraua](#).
- **Zurrimendi:** Apirileko [txangoa](#).

